

UZEI: EUSKAL UNIBERTSITATEARENTZAT AURREGITURA BATEZ

Joseba Intxausti

Jaun euskaltzainok:

Euskaltzaindiaren Idazkaritzatik hartutako deiak esaten duenez, "UZEI: Euskal Unibertsitatearentzat aurregitura batez" hitzegin behar dut. Ez naiz, beraz, orain bero-bero dabilen Unibertsitateaz jardungo, zuzenean bederen.

Eskuartean dugun Aurreplangintza bati buruz mintzatu-ko naiz. Beroni UZEI deitzen diogu, hau da: *Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea*.

Zer da, ba, UZEI hau?

ZER DA UZEI?

Hemen euskal Unibertsitatea aipatzen, inoiz sortu behar-ko dugun euskarazko Unibertsitatea esan nahi dut, ez besterik. Euskal Herriko gizarte elebidunak erdarazkoa ere behar du, noski baino noskiago, orain eta urte askotan. Gu ez gara arazo horretan zuzenean sartzen.

Euskal Herriko Distritua, erdal Unibertsitateetako euskal lana, etab., gure asmotik kanpo geratzen dira berez. Behin baino gehiagotan, guk ere geure bultzadatxo eman beharko dugu arazo horietan; baina UZEIko gure ogibidea beste zer-baitetan emango da. Zertan?

Unibertsital kultura euskaldundu nahi dugu. Horretarako Instituzio bat sortzera goaz, bere lantegi eta langile ordain- duekin, ikasketa eta irakaskuntza bat eskainiz, idazlan eta ikerketak eginez, eta batez ere Unibertsitate baterako jende euskaldundua eta goialfabetatua prestatuz.

Ez dugu Linguistika Fakultate bat egin nahi, ez eta Letretako edo beste edozein Unibertsitate Fakultaterik sortu nahi. Ez da hori gure asmoa.

Denok dakigu, gure kulturaren arazo nagusiei politikatik eman beharko zaiela beren irtenbidea; baina, inondik ere, hainbat lanetarako gizonak eta tresnak beharko ditu politikak ere. Ez dago horik gabe gauzak aurrera aterako dituen gobernu autonomikorik. Ebidentzia horren gain prestatu dugu Aurreproiektua.

UZEI hiru alor nagusitan banatu dugu: a) Goi-alfabetakuntza, b) Ikerkuntza, c) Informakuntza. Ez dute hirurok hazkuntza bera eramango, baina, diruaren arabera, saiatu beharko dugu alor bakoitzari abiadarik bizkorrena ematen.

1) *Goi-alfabetakuntza*. Ezaguna da Euskal Herriko Unibertsitateak zein euskaltasun eskasa duen. Ikastetxe horietan bada jende trebaturik franko; baina dena erdaraz egin ohi da. Hutsune nabarmen hori bete ez, baina piska bat sistematikoki arintzen hasteko izango da UZEIren alor hau. Plangintza bat egin beharko da, lehenik, eta ikastaroak eratu, gero. Hiru sail aipatzen ditugu, posible bezala, Alfabetakuntzaren alorrean: a) linguistika (orokorra, euskal gramatika eta literatura), b) Hizkera tekniko (arazo orokorrak eta euskarari dagozkionak), c) itzulpena. Goi-alfabetakuntza honek, pentsa litekeen, euskaraz hitzegin, irakurri eta idazten dakienari goiprestaketa bat eman nahiko lioke.

2) *Ikerkuntza* da bigarren alorra. Ez dugu noski CSIC bat egin nahi, baina Ikerketarako, lehenengo laguntzarik oinarritzkoenak eskaini litezkeela uste dugu. Beharbada, metodologi arazoetan gidatuz, eta euskal lanean lagunduz baitipat. Lehenengo eskema bezala, hiru sail ematen ditugu hemen ere: a) ikerketarako harremanak, b) mintegiak, c) Ikaskuntza (metodologiak, etab.).

3) *Informakuntzaren* alorra, euskal goi-kulturaren lanabesak prestatzeko izango litzateke. Beronen barnean bi sail aipatzen dira: a) informabideak (liburutegia, Jakin-gordairua), eta b) argitalpenak (hiztegiak, ikas-liburuak, ikerliburuak, aldizkari berezituak). Informakuntzaren alorra, nolabait, lehendik dator: hiztegien plangintza bat egina zegoen "Jakin"-en barnean, baina asmoa haunditoxa zen

argitaletxe horrentzat, berak bakarrik bultzatzeko. Dakike-zuenez, argitara emana dago "Natur Zientziak" deitua; bukatu samarturik "Fisika eta Kimika", eta atzetik datozenak bizkortu nahi dira orain UZEIren barruan, beronen eskuetara pasako baita hiztegi hauen plangintza osoa (politika, ekonomia, teologia, psikologia, historia, soziologia, midikuntza, etab.).

Hau da, bere lerrorik larrietan, gure asmoa: gizonak prestatu, lanabesak sortu. Zeuok, eta beste euskaltzale askok, egiten duzuen lanaren osagarri gertatuko ahal da.

ZENBAIT XEHETASUN ARGIGARRI

Euskaltzain adiskideoi Aurreproiektuaren aurkezpen hau egitean, asmoari etorkizunerako segurtasun batzuk bilatu nahi izan dizkiogu. Asmoak ederrak, eta ederregiak ere, izan baitaitezke eta agian egintzetara eramateko errorik gabeak. Egintzetarako posibilitate horien bila ibili gara orain artean, eta izango dugu oraindik ere lanik franko. Aurreproiektuari zutoinak ematen. Dena dela, dagoeneko ditugun errealitateekin baikor izan gaitezkeela pentsatuta, ausartzen gara Aurreproiektua zuen aurrera ekartzen.

Aurreproiektua "Jakin" kultur taldeak landu du; baina Euskal Herriarentzat erabat irekita bultzatu nahi du. Alde aurretik esaten dugu, kultur talderik indartsuenak ere ez dezake UZEIren antzeko Aurreproiektu bat bakarrik egintzaratu. Gehientsuenon oniritzi eta lankidetzarekin egingo da, ala ez da inoiz egingo.

Orain, halabeharrez, instituzio pribatu bat bezala jaiota ere, ahalik lasterren instituzio publikoa izatera iritsi beharko luke. Euskal Herri osoaren ordezkari politikoek erabaki beharko lukete UZEIrekin zer egin eta nola joka, nahiz eta edozein kultur instituziori legokiokeen autonomiaz hornitua izan.

Beste zerbait ere esan beharra dago. Aurreproiektu hau ez da zerbait hitsia. Aurreproiektua da bakarrik: galdera bat bezala aurkezten da, Euskal Unibertsitatearen arazoaz arduratu daitezkeenek beren iritziak eman ditzaten eta iradokizunak egin. Oso pozik jasoko ditugu zuen ideiak eta kritikak,

beharrezkoak ere baditugu eta. Prest gaude, gure bulegoan, nahi dituzuen xehetasunak emateko eta zabal-zabalik entzuteko.

Gaizki ulertzerik ukan ez dezagun, bada haseratik bertatik argi utzi nahi dudan mugapen bat. UZEI ez da Euskal Unibertsitatearen Plangintza bat. Honago jartzen dugu UZEIren eginkizuna: gure ustez, amesten dugun Euskal Unibertsitatea geroagokoa da. Oraindik ez da eginkorra, ez eta Dekretu bat horretarako emango balitz ere. Euskarazko Unibertsitate bat eginkorra izan dadin, bada oraindik ibili beharreko biderik aski. Ikasleak eta irakasleak eta lanabesak egin gabe dauzkagu, neurri handi batetan bederen, Euskal Unibertsitaterako.

Eta gure asmoaren arabera, hortxe dago, hain zuzen, UZEI bezalako instituzio baten egitekoa eta premia. Unibertsitate-aurreko Eskola bat bezala ikusten dugu UZEI, liburuak eta beste tresnak prestatzeko, lankideei heldutasun berri bat emateko eta euskarari berari ere bai gaitasun jantziago bat. Egiteko dagoen lana, mugagabea da alor honetan. Etortzeko den Euskal Unibertsitaterako ari direnei profesionaltasun bat eman nahi zaie, orain "hobby" bezala daramaten lan eskerge hori ogibide bihurtuaz. Nahitaezkoa da aldakuntza hori lortzea gure euskararen etorkizunerako.

Norbaitek galde lezake, ea nor garen gu Euskal Unibertsitate bat asmatzeko, edoeta zer-nolako Unibertsitatea nahi dugun. Horretaz hauxe bakarrik: guk ez dugu Euskal Unibertsitaterik egin nahi, UZEI Unibertsitate-aurreko Eskola bat izanen da soil-soilik. Berriz diot. Hortxe mugatzen du bere betekizuna, harago jo gabe.

Berez, UZEIk ez du geroko Euskal Unibertsitatea bera ere alde aurretik definitzen, geroko euskal gizartearen definizio bat ematen ez duen bezalaxe. Horietaz geroak esan beza berea.

Hori bai: UZEIren erro-erroan dago Euskal Herriak behar duen euskarazko Unibertsitatea. Esan dezadan, bestalde, ez dugula Euskal Herriko erdal Unibertsitatearen aurrez aurre nahiz kontra jarri nahi. Antitesi hori bera ere ez dago UZEIren berezko ikuspidean. Egin nahi den gauza bakarra zera da: etor litekeen euskarazko Unibertsitaterako euskara eta gizonak gai egin, eta lan hau profesionalki egin.

BEREHALAKO EKINTZAK

Baina UZEI hori nola egintzetara nahi da? Zein ahalpide dago errealitatean mamitzeko?

Aurreproiektua, kultur talde eta banketxeei aurkezten ari gara. UEÜren barnean egin da lehenbiziko aurkezpena. Gero, bakarka lanean ari den zenbaiti eta taldeei eskaini zaie, beren kritikekin Aurreproiektu hori ekintzarako Proiektu bilaka dadin.

Euskal Unibertsitatearen asmoari, UZEIk gaurregun eman dakioken konkretutasunik helduena eman nahi dio. Kultur indarrekin elkartuta mamitu nahi da dena, eta talde horien lana ahalik gehien bizkortzeko, hain zuzen.

Zazpi banketxe ari dira une honetan Aurreproiektua aztertzen, bakoitzak bere laguntza eta partaidetasuna erabaki ditzan. Uztailean bost etxetako zuzendari orokorrekin mintzatu gara, eta beren oniritzi orokor bat jaso dugu. Hortik aurrerako pausoak ematen ari gara: bi banketxek eman dute, dagoeneko, beren baietz erabakia. Dakigunez, udazkenean lanerako eta bilkuretarako tokia izango dugu Donostian.

Dagoeneko, euskal kultur elkarte sail batekin mintzatu gara, bereziki euskal Unibertsitateari begira ari diren taldeekin. Ikusi dugu zein premiazkoa den honelako instituzio bat, euskal lana ogibidetzat harturik jardungo dena. Instituzioztatze honetatik, sekulako aurrerakada ukan dezake euskalgintzak. Hori uste dugu.

Ez dugu taldetxo baten lana egin nahi: benetan Unibertsitateara begira dauden taldeei lagundu nahi zaie. Une honetan, gure kezka ez dago, inondik ere, talde horiek asmoari zein erantzun emango diotenaren galderan. Hori ongi dakigu. Kezka, beste nonbaitetik dator: gure dirudunek zenbatetaraino lagundu nahi eta ahal izango dute? Honelako instituzio baten eskea, ikaragarria da. Diruaren arabera erantzun ahal izango da.

Esan dizkizuedan hauen ondoren eta orain galde ditzakezuenen ondotik, eskari bat egingo nioke Euskaltzaindiari: eman ote dezake Euskaltzaindiak oniritzi orokor bat? Izan ere, gure ahaleginetan lagungarri on bat izango litzateke hori.

Eskeari baiezkorik erantzuterik baldin bada, eskerrik asko alde aurretik. Eta, dena dela, mila esker ere esandakoak entzuteko prest agertu zaretelako.